

### HERRI BAT ZAPALDU DUTE

Munduan herri doakaberik inun baldin badago; herri hori Santo Domingo da. Izan ere, an gertatutakoak ez du izenik. An gertatutakoak biltzaile izugarri bat da, eta guk sinisten dugun Jañko horrek ez du batere balio, oraingo hontan Santo Domingo'ko borroroak suaz kiskaltzen ez baditu.

Gu bizi geran ogeigarren mendeko mundu honetan mito eder asko proklamatzeko dira gobernategi eta pulpitoetatik. Libertatea, errespeta, gizonaren dignitatea, pertsonaren eskubideak. Baina mito horiek ez dute sekulan kumplimenturik arkitzen, eta atzanean beti indarra eta desarrazioa geratzen dira garaille, eta ez daki oraintxe batek nora jo, edo nori erregutu, edo noruntz begira negar egin.

Bada munduan gizonen libertatearen defenditzailerik bortitzena bezela bere burua agertu nahi izan duen nazio jaltu eta miserabile bat. Bada munduan alde batetik, pakea proklamatu, eta bere interesak defenditzeko beste aldetik gura erabili izandua duen nazio materialista eta berekoi bat. Nazio hori ipar-ameriketako E.E.-U.U. da. Eta badirua baita ere nazio goseki horren atzaparrak eta zigorra euren aragian sufritu behar izandua dituzten dozenaka beste nazio. Nazio hoieta bat República Dominicana da. Nazio hau, Santo Domingo kapitela buru eta sinbolo dualarik, E.E.-U.U.'ren martiri berria izandua da orain ilabete gutxi, eta horaindik ez da lortutu kalearen erdian libertatearen alde bizia eman zuten millaka Dominicano gizaixoren odola.

Santo Domingo'ko gertakizuna ez da era horretako gertakizunetan estreñokoa. Historian zer, indarrak milla biler zapaldu ditu beartsua eta bere eskarian justizia. Mila biler baita ere Ego-amerikako nazioak E.E.-U.U. ren indarrari euren buruak makurtu eta errenditu behar izan dizkiote. Orain berreun bat urtetik onuntz ego eta zentro-amerikako nazioak Espainia'ren mendetik askatu nahirik asi ziranean, E.E.-U.U. izandua zuten euren azkatasunaren laguntzalle seguruena. Baina laister ikusi zen E.E.-U.U.'ren jokabideak zer interes zeramazin, eta laguntza harren oraindik zer klasetaokak esijitzen zituen. Urte ilun haie-tatik gaur arte, ego eta zentro-amerikako ekonomia beti E.E.-U.U.'ren eskuetan egon izandua da. E.E.-U.U.'k kontrolatu ditu nazio hoietaok nekazaritza, industria, sal-erosketak eta politika arazoak. Eta nazio hauetako gobernuak monigote batzuek izandua dira E.E.-U.U.'ren eskuetan.

Monrote jaunak bere idea egiz eta letalik agertu izan bazuen, "Amerika amerikanoentzat" esan bearrean, "Amerika E.E.-U.U.'rentzat" esan bearko zuen.

Orrela ba, Santo Domingo'ko historia ez da historia oso berezia, eta bertan ixurritako odola ez da lenen ixurritakoa izandua. Baina bada herri zapaldu honen historian bere suertea ikaragarria egiten duan zerbait. Esango det: Trujillo diktadore izandua izan. Zeatik, munduan diktadore odolaze eta zitalk inun izan bada, diktadore hori Leonidas Trujillo zen. Trujillo 1930'ko maiatzaren 16'an igo zen agintarizara. Egun hura arte República Dominicana'ko polizia nazionalaren buru zen. Famili ilun bateko semea, eskripuloak eta bide zuzena bazterreara utzirik, oso ondo manejatua zuten gori-mallara eraman bear zuten ariak.

1930 baino lehenagoak azken urteetan R. Dominikana'ko politika arazoak etzijoazkioten E.E.-U.U.'ri bezin ondo. Konfiantzako gizon bat behar zuten eurak agindutakora nazioa eramateko. Eta Rafael Leonidas Trujillo'tan arkitu zuten behar zuten gizon hura.

Trujillo'ren agindutza ego —amerikak sufritu dituen diktadurarik odoltsu eta espantagarria bezela pasako da historia. Trujillo'k, E.E.-U.U.'ren laguntzarekin, etzuen urte gutxi barru bere era beldurgarria jokatzeko inoren eragozpenik arkitu. Nazioaren barruko eta kanpoko bere etsairik geienak errukirik gabe likidatu zituen, eta ego-amerikak gutzira zabaldu zituen bere indarraren kateak. Bere garaiok administrazioa gutziz usteldu zuen. Lagun eta adiskideen artean banatu zituan kargu eta prebendak. Nazio'ko klase guzietako aberastasun geienak bere propietade personala zituen, edo bere sendikoenak. Militarrek guardia-espaldala biurtu zituen, eta graduz ipozteko modurik errezena Trujillo'ren etsaiek likidatzea izaten zuten. Trujillo'ren

denborako kartzelak espantagarriak izan bear zuten, eta torturatua izan ondoren kartzela haietan utzi zuten bizia millaka dominicano jatorrek.

Era artako gobernu baten menpe berri zearen bizitza zearen miserabile zen esan bearrik ez dago noski... Baina urteak pasa ziran. Trujillo'ri bere lagunik bortitzenak desleialki jokatzen ari zitzaizkion, eta horrela, ego zoriontsu batez tiroka garbitu zuten.

Hura etzen oraindik libertatea, baina nazioak arnas artu zuen. Nasketa batzuk ondoren, elezioak izan ziran, eta Bosch jauna izandua zen leindakari aukeratua. Gizon zuzena zen, baina okasio artan ahulegi jokatu zuen. Eta horrela, dirudunak, militarrek eta elizako jerarkiak alkarturik, gobernutik bota zuten, eta euren "Junta" bat sortu zuten. Junta onen jokabidea Wessin eta Imbert jeneralen menpean Trujillo'rena bezelakoa biurtzen ari omen zen.

Baina egun batez, orain ilabete gutxi, badirudi herriaren garaia irixi dela. Santo Domingo'ko notiziari bihotza berotzen ditute: "Reboluzioa garaille ¡Reboluzioa garaille!"

Ortik aurrerakoak zertarako kontatu... Negarra eragiten dute.

Or datoz, bai, Norteamerikano zintzoak, indarraren estandarteak eskuetan dutelarik, herriaren eskubideak zapaltzera, injustiziaren partidua defenditzera... Ortara jarri ezker, astakeri bat egiteko arazoirik ez da inoiz faltatzen. Gañera eurak datoz indarrez. Ala diote. Eurak "komunismoaren" aurka datoz... Betiko lelo!

Norteamerikanoak manu zar bat pintatu dute or non-bait, pizti odolaze baten itxura emanaz. Eta mamu horrieri "komunismoa" jarri dituzte izena. Eta or dabitu manduan zear, tontoak engaiatu nahirik.

Astakeri bat egiteko ez da behere arazoirik faltatzen... Eta egunen batean, or, Santo Domingo'n, nolabateko pake bat konpondu dutela esango dute. Baina ez da egia izango. Egia bestela da. Eta mundu guziak jakin dezan nik emendik esango det:

E.E.-U.U.'tarrik, euren interesak defenditzeagatik, herri bat zapaldu dute. LETE



## GIZONAREN EGOERA

"Gizona emen dago fabrikatik etxera, poesi-erramua batekin kontaduriaren numeroetako zuzentari itxusia apurtu nahirik..."

Beste inunex bezela hor arkitu dut gizona, sentitu dut gizonaren egoera latza: Poesi-erramua bat bihotzean eta besoak aidean astinduaz, utsean igari egifuez, eguneroko bizibidetik irten nahirik...

Nola esplikatu hitz hauek entzutean nere baitan sentitu dutana...? Gizonak pena eman dit. Poesi erramua lokatzetik salbatzeko banatu ditezke, bietako batekin hautsi beharra dago... Poesiak bakarrak ez dago bizitzetik. Tamala bai, baina baita egin ere.

Ikusi dut gizona, begiak izarretan eta espalmetan poema bat dualarik, illeko kontuak ezin kuadarturik...

Ametsetan eguneroko uskerietatik irten nahirik ikusi dut, bizibideari lotzen dion katea hautsi nahirik... Baina ezin izan du...

Poesi gabe ezin bizi... eta ogirik gabe hilt!

Nik indar guzietan katea hausten lagundua nahi izan diot... Ez naiz ni kapaz hori lortzeko. Kapaz dena nui dago? Zeren zai trramua lokatzetik salbatzeko? Ark ahal du bainan ez du nahi, izan ere erramutik etzazkio usai ederreko loreak iriztzen, indarrez ziztatzeko dioten litzorrak baizik...

Gizonari esan diot: I ez aiz kontaduriaren numeroak zuzentzeko

jaioa, urrutiratu adi bide hortatik... Ire alaberen bildur aiz? Kantaitzak orduan jaun hoiel jatorrasuna, zindotasuna, ondasuna... Baina ik, Euskalerriko gehientasun itsuaren otso bakartia izaten jarraitu nahi izanduk... Ez duk nahi izan ire erramuren loreak gezurtzarekin ximeltzerik...

Bainan nik maitzago nahi diat ire kanta entzun... Ire egiaik ez bai nautek bildurtzen... Bildur arazten ditukanak lortuko ote ditek i ixil arazate? Zerriak eta zorriak (erorrek esan ukan) lortuko ditek?

Ez ziru nitxok, poemak ez bai ditek ogirik ematen. Hori orrela den bitartea ire egia eta nerean berdinak izango dituk, bestela, bein poemekin ire alaben ogia lortzeko, erramua saltzen baduk, ire egia nere gezurra biurtuko duk...

Inoiz asko mintza izan dituk gure aurka (ez bai gaituk beren lore-eren erosle onak). Eta zer esan diegu? "Esan, esan... ez gaituk aserretuko, zuen egia ogia duk, hortarako kantatzen duzute, idazten duzute, txori gosiak ez dizuegu ogia kenduko..." Bainan nik ezagututako gizona ez. I ez. Txoria bezin libre izandua aiz... Noizbait mingain zikinekoak botatako azkonal urditutu ba-aute ere, berri-rogan, zerrua igo izandua aiz; uso txuri maitagarria izaten jakin izan duk, baita bere garaiean arrano beltz ikaragarria ere...

Bai oso ondo konprenditu aut ik uzte baino obekiago. Zenbat eta zenbat egun luze, fabrikako lan itxusiarrekin apurtu nahiean, hito zorrian. Gabak zein laburrak bihotzean daramakikena paperean ustuzteko. Lehendabizikoak ez dituk alperrikakoak hoietik janaria datorrik beintzat... Eta besteak, zer dakarkitek? Nahigabeak geienetan. Bainan siñetsi zaidak, ez dituk alperrikakoak askok behar dizkiagu, ez dedilla itzali ire sua, jarraitu zak, etzakela aaztu i erortzen baaz beste asko ere irekin jausiko gaitukala... Askotan dena pikota bialitzeko gogua ematen dikalako? Dena uzteko? Obekiago bizitzearren poemak egin beharrean, fabrikari ordu gelaio sartzeko tentaldia?... Orduan, askok pakea ezagutuko ditek ordea eta hori ez, hori sekulan ere ez dedilla gerta!

Bai gizona, bihotz ona duanari eskeñiok irt erramua, lore argi eta usal ederreko erramua... Besteire lore lilluneko erramu garratza...

Horrela nahi aut ikusi "Orain zorionez lejo bat gera otso bakartiak esanaz. Bai orixe, lejo bat gaituk ezer ez dugunez, ezer galtzekorik ez dugunok. Nere erramuak ez dik ezer balio, horregatik bakarrak bada ere, ez diat beinere salduko; ik bezela kantatzia ez diat beinere lortuko, bainan abots txarrez bada ere beti egia esanen dut. SAIZARBITORIA

## ASTETIK ASTERA

Sasi-jakintzari buruz, eta sasi-zientzien aurka, egoki dator, nik uste, Levi Strauss'en astinaldia.

Hemeretzigarren mendeko positibismoa zapaldu nahiz, plegu askotako oldarrak sortu dira. Eskubi aldetik nahi zuten apurtu horietako batzuk: alegia, lehenagoko «pakea» eta «jakinduria» dardaratzen eta lurreratzen zituelako. Baina ba zegoen ere, nere ustez, ezker aldeko kritika bat ere, Kierkegaard'ek sortua.

Hau, ordea, eta hau bezelako guziak, ahulak ziran funtsez; zeren-eta zientziako bideetan barrena abiatu beharrean, nahien eta nahikunde hutsen bidetara jotzen baituzten. Positibisten «hala da» esanari, «ez dut nahi» erantzuten zuten gutxi gora behera. Eta, noski, jokabide honek ez du jende ugariarik bildu.

Levi Strauss'en bidea, aldiz, etnologia huts eta jakintsuaren bidea, besterik da. Levi Strauss etnografiatik etnologiara pasa da; konkreturik jeneralera, fenomenurik legera. Eta hauxe da zientziaren bidea.

Bide hortatik, ordea, gizonaren nahirik sakonena nabarmenerazi ditu. Joera horiek edozein filosofoa eta edozein politika baiño sakonago diran ezker (gizonaren beraren azterketa hutsa eta hotza baitira) filosofia guziak eta politika guziak kristan uzten dirala esan ditek.

Euskaldun intelektual batek (eta hontan Jorje Oteiza'ren laguntza ba duket) gaurko pentsamendu-joerak ezagutu behar ditu. Eta ni bildur naiz Levi Strauss'en lanak ez ote diran euskaldunen artean oso gutxi ezagunak.

«Sorgina eta bere sorginkeria» deritzan saiakera aparta, esate baterako, gutziz zait gogoan hartzekoa (ikus «Temps Modernes», 41 gn. zenb., 1949; edo «Anthropologie Structurale», Plon, 1958). Ezin ditek lero bat ere galdu izkiribu mamitsu hortan.

Oso inportantea da, batez ere, «Zuni» (i) sasi-sorgin hari gertatu zitzaiona. Hitz gutxitan auzaltzeko, luzaz egiteko lekuri ez dudalako, hauxe da gertaera: Zuni bat harrapatu zuten behin, eta sorginkertan zebilelakoan, hil egin behar zuten. Honek, orduan, bere sorgintasuna

(4'gn. orrialdetan jarraitzen du)

bait errietan gure urteetako jendearen artean asko ta asko gerala "e" ta "e" nabaitzen ez ditugunak. Auetako batek inoiz zerbait idazten badu ordea ta s edo z galzki erabili, an balduko dizute zure la boligrafu gorriarekin margotua. Bai jakintsu asko dira gure artean; ez ditzute inoiz ezer egingo, beti lanez itota egongo dira, baina jakintsuak or bai.

Oso errax eskatzen zaito gaurko gazteari bear bezela idazteko, baina noiz ikasita? orain dala 25 edo 30 urte jaito gifañok ez degu noski orduan gertatutakoaren errukir izango? Norbaitek esango du, ez ba dakizute ez idatzi ta akabo. Ez jauna, ez. Zuk jakintsu orrek idazten jakin ta ze esana euki ta ixilik zauden bitartean guk idatziko dugu, guk ez diogu inori lekuri kenduko, osatu bai, ta ondoren dakozenak ze esan ta nola esan jantzirik diranean akitnatz izango da gure orria; ain zuzen gu zaartuzten akitnak izango bai gera.

Gure buruan sartzen ez dana da, liturji barrira dala ta, nola eskual meza ta gaineratzeok eskual era desberdinetan egin diran. Gaur egun nola egin da orri? Guk, lapurteraz, bizkaieraz ez gendukeala ulertuko ta berdin besteak? Bai, ala da bai. Nola ain asieran latinez ana ulertuko gendukean, eta ortik aurrerako dena irabazian, dena gure alde. Baina bai orixe, "alaxe" edo "amen", ze esan bear dan erabakitzen kostatzen baldin bada, nola gure buru gazte ta ez jakinetan beste gaur oiek guziak sartu?

BEBOBIDE

*Bestelakoak al gera?*

Gu, oraindik oso gazteak gerala, maiz sinestu bearrean arkitzen gara. Artzen diran zenbait erabaki/esaten diran zenbait gau ez dira gure buruan sartzen eta nai ta naiez ori pentsatu bear; gauz oiek ulertzeko gazteokoa gerala.

Ez dira zenbait asko igaro, aldzikari beronen orrietan jaun batek GAZTE NAIZ orri an izendatua zuala. Jaun orren iritzian ez zan egokia orri au, bere ordez orrietako herriak, kirola ta kirolari eman bear zitzaion sarrera.

Bera gazte izango ote dan, ori da nik ez dakidan gauza, esan bear diot ordea guk gaztearentzat idazten dugula, aldzikari batean gaztearentzat zuzenki dijoan orri alde bat ez zalguia ain gauza izugarria iruditzen, ez zalguia iruditzen aldzikariaren eginkizunak ain bertan bera botatzen ditugunik.

Gazteak idatziko ba luteke, gai oiek baino dematzaz irakurtzea nalago lutekela, orduan guk ez genduke ezer egitekorik eta gure orri alde orretan bukatuko litzake.

Ez da ordea orrela gertatzen jauna, zuri ez ba zaizu ala iruditzen ere gaztearen buruan bada kirola beste gauzarik.

Guri buruan sartzen ez zaiguna da, nola gaur bizkaieraz idazteko eska zenezakezun. Gure iritzian, ez bizkaieraz eta ez gipuzkeraz ez litzake idatzi bear, euskeraz baizik.

Urte bete igaro da elburu au osatzeko billera batzuek egin dirala, baina nork eman diot arreta? Inork gutxi. Orduan ze demontre gabilta? Ez al litzake orri euskeran iraupenerako neurrik egokiena? Baina, ez, ez.

—Ze uste dute lau edo bost txoro oiek, h'ak noiz erabil behar diran ikastean asiko gerala? Gure euskera eran ez da erabiltzen bai, eta ezin libliko ditugu alperrikako gauzarik.

Au da entzuten dan arrazoietako bat. Orrelakoak ez dakitena da (bai, jakingo dute bai), euskal erriko zen-

# GAZTEDEI KATOLIKOA

Gaurko esera zabaldua da auxe: "Indarra batasunean dagoela". Batasunak sendotzen ditu ari me asko, ta gizonen alegiñak ere, banaak ezarri dezaketena, batasunera ekarriaz iritzi, dezakete gaurko ibil azkarrean bear duten eragiña.

Alde askotara zabaltzen da gizonaren egitekoa. Gorputzaren aldetik, lurreko milla zereginetan sartzen da gizona bizitza onetan, eta animaren aldetik, bai jakintza saillean adimeña argitzeko ta bai oitrua saillean borondatea indartzeko, konta ezin ala lanbide sortzen zaizkio gure izateari.

Guzioz ari gera gurpil onetan gere neurrian lanean; guziok gaude amaika kezketan sartuak. Baiña gizonaren almena, urteen buruan aitzen joaten da, Gizonaren ein bete, gazte sasoiñan bakarrik iristen da. Gaztea da mundu ontako alegiñaren jabea, bai gorputzaren aldetik, eta bai animaren aldeko lanetan ere.

Gaztedi orrek alde askotara erabili dezake bere sasoi ori. Lan-gile Alkartasunetan dala, kirol saillean dala, jakintza saillean ari gerala... Auek guziak lur onetan bukatzen diran arazoak ditugu. Geroko bizitzarako, animari dagozkion arazoak gelditzen zaizkigu zintzo aztertu ta landu bearrekoak. Eta alde ontatik jokutzen du Gaztedi Katolikoak.

Gurt eliz-gaztediak bere kezka animako jardunetan lotua dauka ta lur orretan utzi bear du bere asmenateta izerdianen ondorena. Eliza Amaren seme-alaba diranean, geroko bizitzara garantzian gauzetan alegindu bear du Gaztedi Katolikoak.

Jakina, bere animako saillera gaztedia erakartzeko, mundu ontako jolasbide, kirol, zine, ta bilokiak antolatuta bear izaten ditu; baiña jolasbide ta denbora-pasa auek guziak gure gazteen animak lantzeko artzen ditu. Lurreko atsegin bideak laguntzen dio animen apostoluari, gaztedia bereganatu biltzen. Gazteak inguruzten dituanen, orduan asten da animako artzaien lana zeru-bidea gazteei erakusten...

Espiritua lantzea ez da erreza. Gure izate argal onek bera begira jartzen gaitu, ta zeruruntz begiak jaso-arazteko pixu aundi bat arkitzen degu galeran. Pixu ori beti ere lur aldera tiraka ari zaigu bizi geran bitartean. Lan nekeza, beraz, gure gazteak beren zeruko bidean sailtzea. Ta orain dator gaur esan nai, gendukena.

Edozein arazotan bearrekoa ba-da alkatzea, biltzea gure alegiñak, askoz bearrao izango da zaillenak diran arazotan. Elizak bere eskutian dituan eginkizunetan, aurrenatekoa, gaurko gaztedia bereganatzea du. Gazteen indarra ta gaitasuna, animako lanetarako zailtzen eta ezitzen egin bear du, beraz, bere lanik bilkaietako bat.

Eta onela ikusten degu or-emen, tarteka, bakanka, Gaztediaren bizitasuna esnatzen, lantzen. Gaur eri batean eta biar beste alderdiren batean, or sortzen zaizkigu Gaztedi Katolikoaren Eralguntza ta organizazio berriak.

Baiña asmo on oiek bakanegi, soilki datozkigu. Bata bestearengandik etenda; alkarren artean artu-emanik ez dutela. Ta orrela, oso aul gelditzen dira gure Gaztediaren ardatza eskuan gordetze-ko. Alegiñak utsetan galtzen zaizkie ta ondorenak oso eskasak sortzen dira gero.

Zaragoza'n, esate baterako, Kirol-zelai bat sortu zan, "Casablanca" izenekoa. Ederki egiña, baiña bakanegi geldituko da. Beste erriktakoekin alkartuta askoz indar gerago izango luke bere alegin eta asmo onek. Kirola dala, zine artoak dirala, izketaldiak dirala, gure lanak batasunera jo bear luke. Mundutarrak beren federazio ta elkartek sortzen ba-dakite. Elizako langintzan, noiz ikasi bear degu elkarbide ori artzen?

## Felix Etrabe, S. L.

SUKALDETAKO ERREDIZAK (Muebles)

Formikazko erredizak sukaldetarako

ZALDIBIA (Gipuzkoa) — Urrutizkiña 891754

# Erriko izkeraz eta liturjiaz Jardun dira Erroma'n

Erroma'ko Liturjiak, beti bat. Etzuan arrazoi gutxi Schmidt jakintsuak, esaten zuanean, «monolytus» bat zala. Geldi-geldi egon da; milla urte auetan erri-kulturak izan dituzten aldaketaren, bera bakarrik mugitzeke. Garai aietako jendearentzat egin ziran himno ta sekuenatuetan bezela, auetan ere erreztatu zekena erreztatzen zuan bezela, kristauak errosarioa esaten ari gitan bitartean; baiña ez da gaur orrelako konturik...

Itzule on izateko ez da aski, bearrekoa bada ere, Liburu Santuak ondo ezagutzea eta teoloji asko jakitea; edesti, sikoloji, sozioloji, erri kultura eta izkuntza ondo ezagutu bear ditu.

Ez da naioka —bear bada, kaltegarri izango litzake— Erroma'ko Liturjiaren itz eta esan naiak doi-doi, zeazkiro, itzultzea. Eleiz-Liturjia, Eleiz teologia bezela, europa-kulturaz bete-beteak daude eta zoazte «kategori oiekien Asia ta Afrika aldera.

Gai ua ikutuz, Japon'en zer gertatzen dan, esan zuan Erroma'n Satoshi Nagae Apezpikuak.

Europa'ko izkuntzaren ez omen du zer ikusirik erri artako izkerak. Bi pentsaera artean ere orixe gertatzen omen da. Trinitade eguneko Prefazioa ezin emen leike japoneraztu, ainbeste «persona» eta «substantia» ditulako.

Orain arte, dotriña ori itzaldietan ta kristau-ikasbidean erakusten omen zuten, itzez-itz ibilli gabe, la tin-itzak erabiliz batzuetan, berri batzuek asmatuz besteetan, eta «geienetan inguru-minguruka itzuliz. Jainkoak daki, Eleiz-itzaldi batzuetan errexera jotzen dutela apaizak, latinez ikasi duten teologi-itzak eta joskerak arturik.

—Nola egiazki eta artzai-eraz itzulketak egin? (René BOUDON, Prantzi'ko Liturji-Batzarreko Zuzendaria).

—Itzulketaren zailtasunak (Aita Schmit S. J., Gregoriana Ikastetxe-ko Irakaslea)

—Lan orrek arkitzen dituen eragotzenak, Asia eta Afrika aldean (Xabier Seumois eta Sathoski Nagae, bata, «Centre de Pastoralé cathédrique et liturgique pour la Ruanda et le Burundi» Buru; eta beste Japon'en lan berean ari dana).

—Erriko-izkera nola egin Eleiz-izkera? (Aita Schemid'tek ikutu zuan gai au)

—Ereziak bear duten erri sustraia (Miggiavacca, «Capella Musicale del Duomo di Milano»-ko zuzendaria; Joseph Gelinou S. J., Paris'ekoa)

—Erriko izkerak Liturjiari eragingo dion aldatzea (Oñatibia).

Lanak bukakuta, Aita Santua ikustera juan ziran Batikano'ra eta bai itzaldi ederra entzun ere. Beste gauza eder askoren artean, auxe esan zien Paul VI'garrenak: «Izkuntza baten muga barnean, liturji tekste bat erabili bear da» (L'OS-SERVATORE ROMANO 12-XI-1965).

### LAN GAITZA

Itzulketak guziak dira zailak. Aspaldi esan zuan San Jeronimo'k: «Itzeztz itzuli eskero, zentzugarbekerik bat egingo nuke; ezinak beartuta, antolamendu ta itzaldaketan asitzen ba'naiz, bereala naiz itzul-legeetatik kanpo».

Liturji-itzulketak, baditu, ordea, beste eragotzen batzuk, berezi-berezi. Milla urtetik gora daramaz-

ki Eroma'ko Liturjiak, beti bat. Etzuan arrazoi gutxi Schmidt jakintsuak, esaten zuanean, «monolytus» bat zala. Geldi-geldi egon da; milla urte auetan erri-kulturak izan dituzten aldaketaren, bera bakarrik mugitzeke. Garai aietako jendearentzat egin ziran himno ta sekuenatuetan bezela, auetan ere erreztatu zekena erreztatzen zuan bezela, kristauak errosarioa esaten ari gitan bitartean; baiña ez da gaur orrelako konturik...

Itzule on izateko ez da aski, bearrekoa bada ere, Liburu Santuak ondo ezagutzea eta teoloji asko jakitea; edesti, sikoloji, sozioloji, erri kultura eta izkuntza ondo ezagutu bear ditu.

Ez da naioka —bear bada, kaltegarri izango litzake— Erroma'ko Liturjiaren itz eta esan naiak doi-doi, zeazkiro, itzultzea. Eleiz-Liturjia, Eleiz teologia bezela, europa-kulturaz bete-beteak daude eta zoazte «kategori oiekien Asia ta Afrika aldera.

Gai ua ikutuz, Japon'en zer gertatzen dan, esan zuan Erroma'n Satoshi Nagae Apezpikuak.

Europa'ko izkuntzaren ez omen du zer ikusirik erri artako izkerak. Bi pentsaera artean ere orixe gertatzen omen da. Trinitade eguneko Prefazioa ezin emen leike japoneraztu, ainbeste «persona» eta «substantia» ditulako.

Orain arte, dotriña ori itzaldietan ta kristau-ikasbidean erakusten omen zuten, itzez-itz ibilli gabe, la tin-itzak erabiliz batzuetan, berri batzuek asmatuz besteetan, eta «geienetan inguru-minguruka itzuliz. Jainkoak daki, Eleiz-itzaldi batzuetan errexera jotzen dutela apaizak, latinez ikasi duten teologi-itzak eta joskerak arturik.

—Nola egiazki eta artzai-eraz itzulketak egin? (René BOUDON, Prantzi'ko Liturji-Batzarreko Zuzendaria).

—Itzulketaren zailtasunak (Aita Schmit S. J., Gregoriana Ikastetxe-ko Irakaslea)

—Lan orrek arkitzen dituen eragotzenak, Asia eta Afrika aldean (Xabier Seumois eta Sathoski Nagae, bata, «Centre de Pastoralé cathédrique et liturgique pour la Ruanda et le Burundi» Buru; eta beste Japon'en lan berean ari dana).

—Erriko-izkera nola egin Eleiz-izkera? (Aita Schemid'tek ikutu zuan gai au)

—Ereziak bear duten erri sustraia (Miggiavacca, «Capella Musicale del Duomo di Milano»-ko zuzendaria; Joseph Gelinou S. J., Paris'ekoa)

—Erriko izkerak Liturjiari eragingo dion aldatzea (Oñatibia).

Lanak bukakuta, Aita Santua ikustera juan ziran Batikano'ra eta bai itzaldi ederra entzun ere. Beste gauza eder askoren artean, auxe esan zien Paul VI'garrenak: «Izkuntza baten muga barnean, liturji tekste bat erabili bear da» (L'OS-SERVATORE ROMANO 12-XI-1965).

Japon'era jua gabe ere, nere sa-soeko euskaldunak itxura ortako sermoiak entzuten oitauk geunden... Eta ?guk ikasi gendun kristau bidea? Goguan ditu oraindik garai artako Kerdoaren «xebrekeriak»...

«prinzipioa eta fiña gauza guzie- ta»...

Gaur ezin leike ibilli ataju oieta-tik. Lan gaitza, benetan, eta gure euskerazleentzat batez ere, gure izkuntza eta gure pentsaera latindar erri-koen antzekoak ez diralako...

### EUSKERAREN BATASUNA ETA EUSKAL ERESIAK

Ez du iñork Eroma'n euskera aitatu, baiña bein baño geigotan agindu dute, izkuntza bakoitzaren muga barruan, batasunera jo bear dala. «Agindua zegon ori aspalditik. Garbi itz egin zuan igaz bertan Lercaro Kardenalak. Orain berriro agindu du Aita Santuak, liturji-itzuleai itz egin dienean.



Ona emen, Euskal-Errirako agindu egokia...

Or dabiliz emengo ta bestaldeko Euskalerrian gutxienez iur textu. Nik dakidala beintzat, lan ortan ez du zer ikusi aundirik izan euskera batu naiak.

Ea, oraingo ontan, Erroma'ren esanera jartzen geran edo jartzen alegiñak egiten ditugun.

Eresiekien ere orrelako zerbait gertatzen ari zaigu. Ez da gaizki, al duanek al duana egitea... baiña zergaitik ez alkarren berri jakin eta batasun billa geiago jo ez?

Liturji-eresiak ere erri-sustrai bear du. Ez da aski, «artista» bateri edo biri «mozarabes» atsegin izate... Orretara jo bear ba-gendu, polit askoa da «misa criolla» ere... ¡Orixe bear genduke orain, gure kantu-era baztertu kanpantorean eta «criolloz» edo «mozarabes» asi Eleiz barruan kantari. Badu euskalkantak euskal-gogoa berotzeko aña su ta grazi... Beste zer nai kantakerak baño geiago.

Ez dute txalo txikia merezi lan ortan ari diranak, Belloc'en eta beste toki batzuetan.

Lazkano'ko beneditarren itz —emateetako Garbisu Tomas Jaunak sortu ditun Eresiak ere, euskal-gogotik etartetik datoz, zorianez. ¡Jaunak lagun dagiela!

ERDIKALE

# EPISTOLA

San Paulo Apostoluak Erromatarrai egindako Epistolaren zatia. (Rom. 13, 11-14).  
Anaiok:  
Ezagutu ezazute garaia: ordua dezute lotatik esnatzeko; sinis-berri artan baño urbilago degu gaur gure Osasuna.  
Ba'dihoa gaba; gafean degu eguna;

kendu ditagun, beraz, ilunbetako egintzak, eta jantzi egun-argitako armak. Gabiltzan jator, egun-argiz bezela; ez jan-edankeri ta ordikerietan; ez ema-galdu ta loikerietan; ez aserre ta elkarrentzako bekaltzetan. Jantzi ezazute baizik soñean Jesukristo gure Jauna.

# EBANJELIOA

Guzti ori gertatzen asten danean, zutitu zaitzete, ta jaso burua: ba'dator-ta zuen askatasuna. Eta parabola bat esan zite: Begira egiozute piku-ondoari edo edozein zugaizti; kimu-berritzen asten diranean, ikusi-utsez ba'dakizute urbil dala udara. Olaxe, bada, zuek ere: ori gertatzen dala ikustean, jakin ezazute urbil dala Jaungoikoaren Erreinaua.  
Orra Nik esan: giza-aldi au ez da igaroko, guzti ori gerta dedin baño leenago. Zeruk eta lurrak igaroko dira; Nere itzak ez dira igaroko.

Ebanjelio Santuaren zatia, San Lukas'en Liburutik. Luc. 21, 25-33).  
Aldi artan:  
Onela esan zien Jesús'ek bere Ikasleai: Zantzuak izango dira eguzkian eta illargian eta izarretan; eta estu izango dira lurrean erri-aldeak, itxasoaren orru eta uin-indarrez zoraturik. Gizakiak, arnasikan gabe geldituko dira, munduari gañera datorlionaren bildurrez, zeruko indarrak berak ere dardaratuko bait-dera.  
Orduan ikusiko dute Gizonaren Semea odoi batean etortzen, aalmen eta aintza aunditan.

# ASTETIK...

ukatu beharrean, baieztu egin zuen. Bere herrikideak, orduan, bere kontra jarri beharrean, ia-ia bere alde jarri zirala esan ditek; eta gero eta xehetasun gehiago eskatzen zioten. Bere herrikideek sinistu egin nahi zuten, sinistu egin behar zuten; eta, konturatu gabe, laguntza eskatzen zioten sasi-sorgin hari.  
Gizonak zerbaitetan sinistu behar du: hau da egaririk haundiena, eta 'jokabide guziak argitzen dituen. Levi Strauss'en hitz xuxenak aipatuz: «Salatuak (Zuni harek, alegia) egiairen frogariak dakazkio taldeari, eta hau guzti trinkoago eta aberatsago da taldearentzat «sorgin» hura hiltzea baiña... «Aukera ez da sistema baten eta besteren artean, sorginkeriazko sistema baten eta sistemarik-ez osoaren artean baizik». Horrengatik salbatzen da «sorgiña»: taldeari pentsamentu-oiñari bat ematen diolako.  
Gure barne-muñietan, «argia» behar dugu batez ere, «egia». Egia hori, «egia» baizik ez izan ere, eskeintzen duten filosofoiak, politikak billakutzen dira, eta gero instituzio eta gizarte-lege. Besteak, sistema ukatzen dutelako, baztertu egiten dira: sorginkerien kontrakoak dira! GOIHENETXE

(1) "Zumi" = Nueva Mejico'ko indio-arraza bat da.

**ALVAREZ**  
IKASLENTZAKO ESKU-ZORRO  
Jazteko eta erosketarako poltsak.  
Aterkiak eta maletak.  
ELCANO, 7 DONOSTIA